**ESTATUTUAK** **ESTATUTOS**

# “ARRATIAKO EGOITZA

# HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA”

**2004ko ekainaren 10a**

# AURKIBIDEA

**I. KAPITULUA**

***XEDAPEN OROKORRAK***

1. ATALA
2. ATALA
3. ATALA
4. ATALA

**II. KAPITULUA**

***HERRI-ERAKUNDEAREN JAURTZE-SAILAK***

5. ATALA
6. ATALA

***ZUZENDARI-GERENTEA***

7. ATALA

***IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA ETA DIRUZAINA***

8. ATALA

***ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA***

9. ATALA
10. ATALA

# INDICE

**CAPITULO I**

***DISPOSICIONES GENERALES***

ARTICULO 1º
ARTICULO 2º
ARTICULO 3º
ARTICULO 4º

**CAPITULO II**

***GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL***

ARTICULO 5º
ARTICULO 6º

***EL/LA DIRECTOR-GERENTE***

ARTICULO 7º

***EL SECRETARIO-INTERVENTOR Y EL TESORERO***

ARTICULO 8º

***COMPETENCIAS Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO RECTOR.***

ARTICULO 9º
ARTICULO 10º

**III. KAPITULUA**

***LEHENDAKARITZAREN EGINKIZUNAK***

11. ATALA

**ZUZENDARITZA KONTSEILUBURUA ORDEZTEA, EZ BADAGO, GAIXORIK BADAGO EDO HUTSIK BADAGO**

12. ATALA

***KONTSEILUKIDEEN ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK***

13. ATALA

**IV. KAPITULUA**

***ZUZENDARITZA KONTSEILUA IZENDATU ETA ALDATZEKO BIDEA ETA BATZORDE HORRETAKO KARGUEN IRAUPENA***

14. ATALA

**V. KAPITULUA**

***ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN, BABESERAKO AGINTEAK***

15. ATALA

**ERABAKI GEHIGARRIAK**

**AZKEN AGINDUA**

**CAPITULO III**

***FUNCIONES DE LA PRESIDENCIA***

ARTICULO 11º

***SUSTITUCIÓN DEL PRESIDENTE DEL CONSEJO RECTOR, EN EL CASO DE AUSENCIA, ENFERMEDAD O VACANTE***

ARTICULO 12º

***DERECHOS Y DEBERES DE LOS VOCALES***

ARTICULO 13º

**CAPITULO IV**

***PROCEDIMIENTO PARA EL NOMBRAMIENTO Y RENOVACIÓN DE LA JUNTA RECTORA Y DURACIÓN DE LOS CARGOS DE LA MISMA***

ARTICULO 14º

**CAPITULO V**

***FACULTADES DE TUTELA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA***

ARTICULO 15º

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

**DISPOSICIÓN FINAL**

# E S T A T U T U A K

## "ARRATIAKO EGOITZA

## HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"

# I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

**1. ARTIKULUA**

1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk, "Egoitza Zentroa" eta "Eguneko Zentroa" zerbitzu publikoa osatu edo eratzeko ahalmena erabiltea eta horreen kudeaketea "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" izenekoaren bidez egitea erabagi dau. Hori guztia, honeek emondako eskumenak erabilita egin dau: Toki Araubidearen ganeko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. artikulua; udal gobernua modernizetako neurrien ganeko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen lehenengo artikulua; Estatuko Administrazino Orokorraren Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren ganeko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen II. Kapituluko III. Izenburua; Udalbatzetako Biztanleria Araudiaren 31. eta 39. bitarteko artikuluak; eta ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN Estatutuetako 3-1-f) artikulua; horreek guztiak 7/1985 Legearen 85-2, 85-3 b) eta 85-bis artikuluagaz eta baterakoakaz lotuta.

2. "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAren osoko bilkurari lotuta geratuko da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85-bis artikuluan xedatu dan legez; hori, udal gobernua modernizetako neurrien ganeko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen lehenengo artikuluak aldatu eban.

# E S T A T U T O S

## "ARRATIAKO EGOITZA

## HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"

# CAPITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

**ARTICULO 1º**

1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en uso de las competencias atribuidas por los artículos 44, de la Ley 7/1.985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local; artículo primero de la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local; Título III - Capitulo II de la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado; artículos 31 a 39 del Reglamento de Población de las Corporaciones Locales; y artículo 3º-1-f) de los Estatutos de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA; todos ellos puestos en relación con el artículo 85, nº 2, nº 3 letra b) y 85-bis de la Ley 7/1.985 y concordantes, acuerda ejercitar la potestad para crear o constituir el servicio público de un "Centro Residencial" y un "Centro de Día", y gestionar los mismos mediante un Organismo Autónomo Local que se denominará "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA

2. El Organismo Autónomo Local "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" queda adscrito a la Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, tal y como se dispone en el art. 85-bis de la Ley 7/1985, de 2 de abril, modificada por el artículo primero de la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del Gobierno Local.

3. Aitatutako zerbitzu publikoak, izaera ekonomikokoak ez diranez, MANKOMUNITATEKO zerbitzu legez eratzeko ez da burutu behar Udalbatzetako Zerbitzuen Araudiaren 45. artikuluak eta hurrengoek azaltzen dabezan udalekotze prozedurea.

Bere izaera laguntzako gizarte laguntzea da eta, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk aitatutako zerbitzuak burutzeak ez dau ekarriko ARRATIAKO MANKOMUNITATEKO udalerrietan monopolioa egoterik.

4. "Egoitza Zentro" legez eratuko dan zerbitzu publikoaren helburua, etenbakoa eta komuna izango dan etxebizitza zerbitzua emotea da; bertan, modu guztietako eta etenbako arreta emongo jake adineko pertsonei, eta minusbaliotasunen bat daben pertsonei arreta emoteko nahikoa bitarteko material be eukiko dau.

5. "Eguneko Zentro" legez eratuko dan zerbitzu publikoaren helburua adineko pertsonei egunean zehar banakako arreta emotea da, beste pertsona batzuen laguntzea behar badabe eguneroko bizitzako jarduerak egiteko; modu berean, arreta emongo jake aitatutako taldearen antzeko inguruabar pertsonal eta sozialak daben ganerako pertsonei be.

3. Los mencionados servicios públicos, al no ser de naturaleza económica, su constitución como servicios mancomunados, no exige el procedimiento de municipalización a que se refieren los artículos 45 y siguientes del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales.

Su naturaleza es beneficio social asistencial y el ejercicio de los mencionados servicio por ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA no implica monopolio en los municipios mancomunados de ARRATIA.

4. El servicio público que se crea como "Centro Residencial", tiene por objeto el proporcionar un servicio de vivienda permanente y común, en que se preste una atención integral y continua a personas mayores, estado dotado de los medios materiales suficientes para la atención de personas discapacitadas.

5. El servicio público que se crea, como "Centro de Día", tiene por objeto el proporcionar de atención diurna individualizada a personas mayores que necesiten ayuda de otras para la realización de sus actividades de la vida cotidiana, asi como a aquellas otras que en circunstancias personales y sociales puedan equipararse a las del mencionado colectivo.

**2. ARTIKULUA**

Zerbitzu barriaren kudeaketea zuzenean egingo dau ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk, Toki Araubidearen ganeko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85-3-b) artikuluak termino horretarako aurreikusitako esanguran.

Hain zuzen be, Herri Erakunde Autonomoaren kudeaketea ezarri da kudeaketa modu legez eta, horretarako, Udalbatzetako Zerbitzuen Araudiaren 85.c) artikulua aplikau leikio.

**ARTICULO 2º**

La gestión del nuevo servicio se realizará en forma directa por ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en la acepción que para el término previene el artículo 85-3-b) de la Ley 7/1.985 de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

En concreto se determina como forma de gestión la del Organismo Autónomo Local, entendiéndose a estos efectos aplicable el artículo 85.c) del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales.

**3. ARTIKULUA**

"ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" Herri Erakunde Autonomo legez eratu da, ontzat emoteko beharrezko legezko tramite guztiak gainditu ostean.

Aldaketaren bat badauka, ontzat emoteko hartu ziran formalidade guztiak bete beharko dira osterabe.

Aldaketarik ez dagoan bitartean, indarrean dagoala ulertuko da; salbuespen bakarra, horren ostean emondako arau orokorrak izango dira, besteen ganetik izango dabe eragina eta zuzenean eta automatikoki aplikauko dira.

**ARTICULO 3º**

"ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" constituido como Organismo Autónomo Local se regirá por el presente Estatuto, una vez superados todos los trámites legales preceptivos para su aprobación.

La modificación del mismo deberá sujetarse a idénticas formalidades que su aprobación.

Hasta tanto que no se hubiere producido tal modificación, se entenderá vigente con la única excepción de cualesquiera disposiciones normativas generales posteriores al mismo, que serán en todo caso prevalentes y de aplicación directa y automática.

**4. ARTIKULUA**

1. "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"k nortasun juridiko osoa eta modu guztietako ondasunak eskuratu eta eukiteko beharrezko gaitasuna izango dau, bai eta horreek besterentzeko, kargetako, hipoteketako, pignoretako eta horreen ganean era guztietako bermeak eratzeko gaitasuna be; edozelango ekintza eta errekurtsoak, arruntak zein apartekoak, burutu ahal izango dauz Epaitegi, Auzitegi eta Agintaritzen aurrean; legatu eta dohaintzak onartu ahal izango dauz, bai eta dirua maileguan hartu be; halaber, behar legez moldatzeko beharrezko ekintza eta kontratuak egin ahal izango dauz.

2. "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"k, pertsona juridikoari jagokonez, ondare propioa eukiko dau, Udalbatzetako Zerbitzuen Araudiaren 86.1 artikuluak agindutakoaren arabera. Ondare hori, jarraian azaldu moduan eratuko da:

a) Herri Erakunde Autonomoari atxiki eta eragingo jako DIMA udalerriko (Bizkaia) Ibarra auzoko 17. zenbakian dagoan eraikina; zerbitzu horretako helburuetarako bakarrik, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk erabilera lagako deutso, bera baita ondasun horren erregistroko erakunde titularra; bere

**ARTICULO 4º**

1. "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" tendrá plena personalidad jurídica y capacidad necesaria para adquirir y poseer toda clase de bienes, enajenarlos, gravarlos, hipotecarlos, pignorarlos y constituir toda clase de garantías sobre los mismos; ejercitar toda clase de acciones y recursos ordinarios y extraordinarios ante Juzgados, Tribunales y Autoridades; aceptar legados y donativos, tomar dinero a préstamo y cuantos actos y contratos sean necesarios para su desenvolvimiento normal.

2. "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA", en cuanto persona jurídica, poseerá patrimonio propio, conforme al artículo 86.1 del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales. Dicho patrimonio estará constituido de la siguiente forma:

a) Se adscribe y afecta al Organismo Autónomo Local el edificio sito en Ibarra auzoa nº 17 del Municipio de DIMA (Bizkaia), edificio que a los exclusivo fines de dicho servicio se cede en uso por parte de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITA-TEA, Entidad titular registral de dicho bien, que integra su patrimonio con la calificación

ondarea herri jabariko ondasunaren kalifikazinoagaz eta zerbitzu publikoaren sailkapenagaz hartzen dau.

Aitatuko higiezinaren helburua Herri Erakunde Autonomo honen erabilerea izango da, estatutu honeek ontzat emoten diranetik aurrera.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk higiezina Herri Erakunde Autonomoari lagatzea erabagiko dau, jagokon administrazino-espedientea tramitau ostean; MANKOMUNITATEAk higiezinaren jabetza gordeko dau.

Herri Erakunde Autonomoak ezelan be ezingo dau higiezina kargau edo besterendu, ez eta bere egiturea funtsean aldatu be. Era berean, ezin izango dau alogeran emon, alogeran daukanak alogeran emon edo prekario erabilerea emon, ez eta beste batzuek erabilteko baimena emon be, ez zati baten ez guztia, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk beren-beregi baimentzen ez badau.

b) Herri Erakunde Autonomoaren ondarea bere helburua burutzeko beren-beregi jasoten diran diru-laguntza edo espezie-laguntzen bidez be eratuko da, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk edo beste erakunde publiko batzuek emonda, edota beste pertsona fisiko zein juridiko batzuek emonda.

Ondarezkotzat hartuko dira batez be Erakunde Autonomoak eskuratu edo lagata hartutako ondasun, altzari, tresna eta erremintak.

Holan ba, bere jabetzakoak izango dira Herri Erakunde Autonomoaren eraikinean gordeta dagozan altzariak eta ganerakoak, kontrakoa frogatzen ez bada.

c) Amaitzeko, Erakunde Autonomoaren ondare izango dira bertako berezko sarrerak, berbarako, egoiliarren kuotak edo bestelako onurak.

3. Zerbitzuak emotetik eskuratutako onurak, gastuak eta erreserba fondoa estali ostean, instalazinoak hobetu eta handitzeko erabiliko dira guztiz.

de bien de dominio público y clasificación de servicio público.

El mencionado inmueble queda destinado al uso de que se trata, por parte de la Organismo Autónomo Local, desde el momento de la aprobación de los presentes Estatutos.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA procederá a acordar la cesión del mismo al citado Organismo Autónomo Local, tras la tramitación del correspondiente expediente administrativo, reservándose la Mancomunidad la propiedad sobre el mismo.

En ningún momento podrá el Organismo Autónomo Local gravar o enajenar el inmueble, ni modificar esencialmente su estructura. Tampoco podrá arrendar lo, subarrendarlo o conceder uso a precario o terceros, ni en todo ni en parte, salvo autorización expresa de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

b) También se compondrá el patrimonio del Organismo Autónomo Local con las subvenciones económicas o en especie que se reciban para el fin específico de que se trata, procedentes de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA de otros Organismos Públicos, así como de personas físicas y/o jurídicas.

Especialmente se considerarán patrimoniales, los bienes, muebles, instrumentos y utillaje que se cedan o adquieran por el Organismo Autónomo.

A tales efectos serán propiedad del mismo, cualesquiera muebles, etcétera, depositados en el edificio del Organismo Autónomo Local, salvo prueba en contrario.

c) Formarán por último patrimonio del Organismo Autónomo, los ingresos propios del mismo, como cuotas de residentes y otros beneficios.

3. Los beneficios que se obtuvieren de la prestación de los servicios, una vez cubiertos los gastos y el fondo de reserva, se destinarán íntegramente a mejorar y ampliar las instalaciones.

# II. KAPITULUA

## HERRI ERAKUNDE AUTONOMOAREN GOBERNU ETA ADMINISTRAZINOA

### 5. ARTIKULUA

Herri Erakunde Autonomoaren gobernu eta administrazinoa Zuzendaritza Kontseiluaren pentzura egongo da eta, bere menpe, kudeaketea zuzendari-gerente batek burutuko dau.

### 6. ARTIKULUA

1.- Zuzendaritza Kontseilua holan eratuko da:

Kontseiluburua:
- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO lehendakaria.

Kontseilukideak:
- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzea eratzen daben mahaikideak (9).
- Zuzendari-gerentea; berbea eukiko dau, baina botorik ez.

Idazkari-kontuhartzailea:
- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO idazkari-kontuhartzailea; berbea eukiko dau, baina botorik ez.

2.- Zuzendaritza Kontseiluaren batzarretara, erakunde horren ustez zenbait gai zehatz eztabaidatu eta konpontzeko deialdia jaso ahal daben pertsonak joan ahal izango dira.

Aitatutako pertsona horreek, berbea eukiko dabe, baina botorik ez.

# CAPITULO II

## GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN DEL ORGANISMO AUTONOMO LOCAL

### ARTICULO 5º

El gobierno y administración del Organismo Autónomo Local estará a cargo de un Consejo Rector y, bajo su dependencia, la gestión será ejercida por un Director-Gerente

### ARTICULO 6º

1.- El Consejo Rector tendrá la siguiente composición:

Presidente:
- El/La Presidente-a de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

Vocales:
- Los/Las Vocales (9) que componen la Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.
- El/La Director-Gerente, que tendrá voz pero no voto.

Secretario-Interventor:
- El/La Secretario-Interventor-a de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, que tendrá voz pero no voto.

2.- Podrán asistir a las reuniones del Consejo Rector aquellas personas que, a juicio de dicho órgano, convenga convocar para debatir y resolver en su caso determinadas cuestiones puntuales.

Dichas personas tendrán voz pero no voto.

## ZUZENDARI-GERENTEA

### 7. ARTIKULUA

1.- Zuzendari-gerentearen lanpostua administrazino publikoetako lan kontratupeko beharginen batek edo administrazino pribatuko profesional batek burutu ahal izango dau; kasu bietan, goi mailako titulazinoa euki beharko dabe eta, bigarrenaren kasuan, bost urte baino gehiagoko esperientzia profesionala.

"ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMO"ko zuzendari-gerentearen kontratazinoak lan kontratuaren izaerea eukiko dau.

2.- Zuzendari-gerentearen kontratuak, Zuzendaritza Kontseiluak horretarako egoki erixten dauzan atribuzinoez ganera, honako honeek be zehaztu beharko dauz:

a).- Erakunde Autonomoan emoten diran zerbitzu ezbardinak zuzentzea, bere Burutza Teknikoa erabilita.

b).- Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseiluburuari, Herri Erakundearen funtzionamendurako komeni dirala uste dauzan neurri guztiak proponitzea, bere helburuak behar dan legez beteteko.

c).- Zuzendaritza Kontseiluaren erabagi eta ebazpenak burutzea, eta horrek beren-beregi eskuordetutako funtzinoak onartzea.

d).- Jagokozan ordainketak agintzea, Aurrekontuaren Burutzapen Oinarriei segiduta.

e).- Zuzendaritza Kontseiluak aztertu, horren barri izan, eztabaidatu eta ontzat emoteko ipini behar diran gai eta agiri guztiak prestau, batu eta antolatzea, idazkari-kontuhartzaileagaz lankidetzan ibiliz.

f).- Zuzendaritza Kontseiluaren batzarretara joatea, berbagaz baina boto barik.

g).- Dokumentazinoa emotea eta egindako eragiketa eta zerbitzuen erregistro eta estadistikak egiten dirala jagotea.

## EL/LA DIRECTOR-GERENTE

### ARTICULO 7º

1.- El puesto de Director-Gerente podrá ser desempeñado por personal laboral de las administraciones públicas, o por un profesional del sector privado, que deberán estar en posesión de titulación superior en ambos casos, y con más de cinco años de ejercicio profesional en el segundo.

La contratación del Director-Gerente de "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA" tendrá naturaleza laboral.

2.- El contrato del Director-Gerente deberá especificar, además de las atribuciones que al mismo se estimen oportunas por el Consejo Rector, las siguientes:

a).- La Dirección de los diferentes servicios que se prestan en el Organismo Autónomo, ostentando su Jefatura Técnica.

b).- Proponer al Consejo Rector y al Presidente cuantas medidas considere convenientes en orden al funcionamiento del Organismo Autónomo y al adecuado cumplimiento de sus fines.

c).- Ejecutar los acuerdos y resoluciones del Consejo Rector y asumir las funciones que éste le delegue expresamente.

d).- Ordenar los pagos correspondientes, con sujeción a las Bases de Ejecución del Presupuesto

e).- Preparar, recoger y ordenar todos los asuntos y documentos que hayan de ser sometidos al estudio, conocimiento, despacho y aprobación del Consejo Rector, todo ello en coordinador con el Secretario-Interventor.

f).- Asistir con voz, pero sin voto, a la reuniones del Consejo Rector.

g).- Expedir la documentación y cuidar que se lleven los registros y estadísticas de las operaciones y servicios realizados.

h).- Ekitaldi bakotxaren amaieran, Erakunde Autonomoaren kudeaketa garapena azaltzen dauan memoria emotea Zuzendaritza Batzordeari.

i).- Beren-beregi agindu jakozan ganerako atribuzino guztiak.

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA ETA DIRUZAINA**

**8. ARTIKULUA**

1.- Zuzendaritza Kontseiluko idazkari-kontuhartzailearen lanpostua ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO idazkari-kontuhartzailearen funtzinoak burutzen dauzan karrerako funtzionarioak beteko dau.

2.- Idazkari-kontuartzailearen lanpostua bete barik geratzekotan, edo idazkari kontu-hartzailea ez badago edo gaixorik badago, MANKOMUNITATEKO karrerako funtzionario batek ordeztu ahal izango dau bere funtzinoak beteteko.

3.- Honexek izango dira idazkari-kontuhartzailearen zeregin nagusiak:

a).- Fede publikoa.

b).- Derrigorrezko legezko aholkularitzea.

c).- Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta aurrekontuaren kontrola eta barne ikuskaritzea egitea, kontabilidadea, diruzaintzea eta bilketea kontroletan.

d.-) Azken finean, indarrean dagoan legeriak udal bateko idazkari-kontu-hartzaileari esleitu deutsazan erantzukizun guztiak burutzea, bai eta estatutuetako helburuak behar legez moldatzeko beharrezko funtzinoak burutzea be.

4.- Diruzainaren kargua ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAn diruzainaren funtzinoak beteten dauzan mahaikideak beteko dau.

h).- Elevar al Consejo Rector al termino de cada ejercicio la memoria comprensiva del desarrollo de la gestión del Organismo Autónomo.

i).- Aquellas otras atribuciones que expresamente se le encomienden.

**EL SECRETARIO-INTERVENTOR Y EL TESORERO**

**ARTICULO 8º**

1.- El puesto de Secretario-Interventor del Consejo Rector será desempeñado por el Funcionario de Carrera que desempeñe las funciones de Secretario-Interventor de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

2.- En el caso de vacante, ausencia o enfermedad del Secretario-Interventor, éste podrá ser sustituido en sus funciones por un Funcionario de Carrera de la Mancomunidad.

3.- Los cometidos principales del Secretario-Interventor serán los siguientes:

a).- Fé Pública.

b).- Asesoramiento legal preceptivo.

c).- Control y la fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria, de la contabilidad, de la Tesorería y de la Recaudación.

d.-) En definitiva, ejercer todas aquellas responsabilidades que la legislación vigente atribuya al Secretario-Interventor de un Ayuntamiento, asi como todas aquellas que sean necesarias realizar para el correcto desenvolvimiento de los fines estatutarios.

4.- El cargo de Tesorero recaerá en el/la Vocal que desempeñe las funciones de Tesorero de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

5.- Diruzainaren funtzinoak irailaren 18ko 1.174/1987 Errege Dekretuak aurreikusitakoak izango dira. Honako honexek izango dira, hain zuzen be:

a).- Erakunde Autonomoaren fondo, balio eta ondareak erabili eta jagotea, indarrean dagozan legezko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

b).- Bilketa Zerbitzuen buruzagitzea.

5.- Las funciones del Tesorero serán las previstas en el art. 5º del Real Decreto 1174/1987, de 18 de septiembre, las cuales se concretan principalmente en las siguientes:

a).- Manejo y custodia de fondos, valores y efectos del Organismo Autónomo, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes.

b).- La jefatura de los Servicios de Recaudación.

## ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

**9. ARTIKULUA**

Honexek izango dira Zuzendaritza Kontseiluaren funtzinoak:

1. Modu guztietako kontratuak egitea, legeak kontuan hartuta.

2. Epaiketan edo epaiketatik kanpo, edozein Epaitegi, Auzitegi, Agintaritza edo Korporazinoren aurrean, Erakunde Autonomoaren ondasun, eskubide eta ekintzak eskatu edo defenditzea; edozein gai onartu edo epaiketa arbitralaren menpe ipini ahal izango dau, bai eta horrek sortutako ekintza eta errekurtsoetan atzera egin be.

3. Herri Erakundearen ondasunak jaso eta administretea, bai eta herentzia, legatu eta dohaintzetatik eratorritakoak be.

4. Ondasunak hoberen erixten dauan moduan erabiltea, indarrean dagozan administrazino-xedapenei segiduz eta, batez be, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAren baimenagaz, holan bada.

5. Erakunde Autonomoarenak diran era guztietako ondasunak, higigarriak zein higiezinak, eskuratu edo besterentzea, administrazino-arauei segiduz eta Estatuetan aurreikusitako salbuespenak kontuan hartuta.

## COMPETENCIAS Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO RECTOR

**ARTICULO 9º**

Serán funciones del Consejo Rector:

1. Celebrar, con arreglo a las leyes, toda clase de contratos.

2. Reclamar o defender en juicio o fuera de él, ante cualquier Tribunal, Juzgado, Autoridad o Corporación, los bienes, derechos y acciones pertenecientes al Organismo Autónomo, pudiendo transigir o someter cualquier cuestión a juicio arbitral, así como desistir de las acciones y recursos que promueva.

3. Recibir y administrar los bienes del Organismo Autónomo y los procedentes de herencias, legados y donativos.

4. Disponer de los bienes en la forma que crea más conveniente, con arreglo a las disposiciones administrativas vigentes y especialmente con la autorización en su caso de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

5. Adquirir o enajenar toda clase de bienes, muebles e inmuebles, pertenecientes al Organismo Autónomo, con arreglo a las normas administrativas y con las excepciones previstas en los Estatutos.

6. Beharginen izendapena, kargubakotzea eta araubide ekonomiko eta lan araubidea erabagitea, bai eta jazo eitekezan ganerako jazoerak be, batez be zuzendari-gerentea kontratau, aldatu eta ebazteari jagokonez, eta hari jarduteko modu orokorrak adierazotea be.

6. Acordar el nombramiento, destitución y régimen económico y de trabajo del personal, así como demás incidencias que pudieran presentarse, especialmente la contratación, modificación y resolución del Director-Gerente y señalamiento al mismo de las directrices generales para su actuación.

7. "Egoitza Zentroan" eta "Eguneko Zentroan" hartutako partikularrak onartu eta bajan emotearen ganean ebaztea; horretarako, aurretiaz oro har ezarritako helburu prozedurak segidu beharko dira.

7. Resolver la admisión y baja de los particulares acogidos en el "Centro Residencial" y en el "Centro de Día", siguiendo para ello procedimientos objetivos previamente establecidos con carácter de generalidad.

8. Prozedura horreek eragin leikezan interpretazino zalantzak eta estatutu honeetan ez Barne Araubideko Araudian aurreikusi ez diran ganerako jazoerak argitzea, beti be bardintasun erispideak erabilten saiatuz.

8. Resolver las dudas de interpretación que tales procedimientos puedan presentar y asimismo cuantas otras incidencias no queden previstas en los presentes Estatutos, ni en el Reglamento de Régimen Interior, procurando siempre utilizar criterios de máxima equidad.

9. Zuzendaritza Kontseilua eskudun organoa da aurrekontuak, likidazinoak, kontuak eta estatutu honeen arabera idazkari-kontuhartzaileak idatzi behar dauzan ganerako agiriak ontzat emoteko, zuzendari-gerenteak proponidutakoari segiduz, kontseiluburuak horretarako aurkeztuta.

Aitatutako ontzat emoteak, holakorik egotekotan, batzarrean egin beharko dira; batzarra egin aurretik denpora nahikoa egongo da ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ontzat emondako agiriak kontroletako.

9. El Consejo Rector es el órgano competente para aprobar presupuestos, liquidaciones, cuentas y los demás documentos que según el presente Estatuto deben ser redactados por el Secretario-Interventor, a propuesta del Director-Gerente y que a tal fin serán presentados por el Presidente.

Las mencionadas aprobaciones deberán ser realizadas en su caso mediante reunión que se celebrará con tiempo suficiente para que dichos documentos aprobados puedan ser sometidos a la fiscalización de la ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, dentro de los plazos prevenidos para ello.

10. Zuzendaritza Kontseilua Erakunde Autonomoaren Organo Gorena da ondore guztietarako eta, ondorioz, ildoak markau eta zuzendari-gerentearen erabagiak kontrolauko dauz.

10. El Consejo Rector es el órgano supremo de gestión del Organismo Autónomo a todos los efectos y en consecuencia, marcará las directrices y fiscalizará las decisiones del Director-Gerente.

11. Zuzendaritza Kontseilua aparteko bileran batzartuko da gitxienez bertako kideen laurdenak eskatzen dauanean, edo kontseiluburuak holan erabagiten dauanean; ganera, gitxienez hiru hilabetean behin ohiko bileran batzartuko da.

11. El Consejo Rector se reunirá con carácter extraordinario en cuanto lo soliciten al menos una cuarta parte de sus miembros o cuando así lo acuerde el Presidente, y se reunirá con carácter ordinario como mínimo una vez cada tres meses.

Ohiko eta aparteko batzarren deialdia kontseiluburuak egingo dau batzarra izan baino 48 ordu lehenago, gitxienez. Eguneko aztergai-zerrendan batzar bakotxean aztertu beharreko gaiak azalduko dira.

La convocatoria de las reuniones ordinarias y extraordinarias las cursará el Presidente con una antelación de 48 horas. En el Orden del Día se fijarán los asuntos a tratar en cada reunión.

12. Zuzendaritza Kontseilua behar moduan eratuta geratu daiten, ohiko bileretan zein aparteko bileretan, beharrezkoa izango da Zuzendaritza Kontseiluan berbea eta botoa daukien kideen herena bertaratzea, eta inoz ezin izango da lau kide baino gitxiagokoa izan.

Horretarako, bertaratutakoen guztizko kopurua zehazteko, arestion adierazotako pertsonak bakarrik zenbatuko dira.

Aitatutako quoruma egongo ez balitz, Zuzendaritza Kontseilua bigarren deialdian eratuko da, ordubete beranduago. Bigarren deialdi honetan be beharrezko quoruma lortuko ez balitz, deialdia ondore barik geratuko da.

Zuzendaritza Kontseiluaren akordioak bertako kideen gehiengo soilaz hartuko dira normalean. Halanda be, gehiengo absolutua beharko dabe honako gai honeen ganeko akordioek: ondasunen erabilgarritasuna, ekintzak burutzea edo epaiketan defenditzea, zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emotea (euren zenbatekoa erakundearen aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino gehiagokoa denean(, kreditu-eragiketak ontzat emotea, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEARI estatutu honeek aldatzeko eskatzea, kontratua amaitzea edo zerbitzurik banantzea eragiten daben beharginentzako zehapenak, erakundeagaz daukien hartu-emona administrazino izaerakoa bada, eta egoiliarren bat botatea.

12. Para que el Consejo Rector quede válidamente constituido, tanto en las sesiones ordinarias como extraordinarias, será necesaria la asistencia de un tercio del número de los miembros del Consejo Rector que tengan voz y voto, que nunca podrá ser inferior a cuatro.

A estos efectos, se computará para establecer el número total de asistentes, exclusivamente a las personas anteriormente mencionadas.

Si no existiese dicho quórum, el Consejo Rector se constituirá en segunda convocatoria 1 hora después. Si en esta segunda convocatoria tampoco se lograra el quórum necesario, la Presidencia dejará sin efecto la convocatoria.

Los acuerdos del Consejo Rector serán adoptados normalmente por mayoría simple de sus asistentes. Requerirán no obstante mayoría absoluta los acuerdos referentes a disposición de bienes, ejercicio de acciones o defensa en juicio, concesión de servicios por más de cinco años y cuya cuantía exceda del 10% de los recursos ordinarios del presupuesto de la Entidad, aprobación de operaciones de crédito, solicitud a ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA la modificación de los presentes Estatutos, sanciones al personal que impliquen la terminación de contrato o separación del servicio de aquellos cuya relación con el Ente sea de carácter administrativo, y expulsión de algún residente.

13. Akta Liburua egingo da eta, bertan, honexek idatziko dira: batzarrak hasteko leku, egun eta ordua; kontseiluburuaren eta bertaratu diran ganerakoen izen eta abizenak; eztabaidatu diran gaiak eta hartutako erabagiak.

Aktak idazkari-kontuhartzaileak eta kontseiluburuak sinatuko dabez, eta ostean, ontzat emoteko ipiniko dira.

13. Se llevará un Libro de Actas, en el que se anotará el lugar, día y hora en que comienzan las reuniones; los nombres y apellidos del Presidente y demás asistentes; los asuntos sometidos a deliberación y los acuerdos adoptados.

Las Actas, que serán firmadas por el Secretario-Interventor y el Presidente, serán objeto de aprobación en la sesión inmediata posterior.

14. Zuzendaritza Kontseiluaren batzarretako bozketak publikoak izango dira, kontseilukideen eta beren familien ganeko gaiak bozkatzen diranean izan ezik; holakoetan, bozketak isilekoak izango dira eta kontseilukide interesduna ez da bilera egingo dan lokalean egongo, gaia eztabaidatu edo botoa emoten dan bitartean, eta absetenidu egingo da, gaian zuzeneko interesa daukalako.

14. Las votaciones en las reuniones del Consejo Rector serán públicas, salvo cuando se trate de asuntos relativos a los propios Vocales y a sus familiares, en cuyo caso las votaciones serán secretas, debiendo el Vocal interesado permanecer ausente del local donde se celebre la sesión, en tanto se discute o vota el asunto y abstenerse de votar al tener un interés directo en el asunto.

**10. ARTIKULUA**

Ondasunen erabilgarritasunari edo kontratuei buruzko Zuzendaritza Kontseiluaren akordio guztiek zehatz adierazo beharko dabe Kontseilu horren eskuordetzaz, aitatutako agiriak sinatzeko baimena izango dauan pertsona.

Akordioak zehazten ez badau, agiria sinatzeko botere orokorra kontseiluburuari emon jakola ulertuko da.

**ARTICULO 10º**

Todos los acuerdos del Consejo Rector que se refieran a disposición de bienes o contratos deberán especificar en concreto la persona que por delegación de dicho Consejo, quede autorizada para la firma de dichos documentos.

En el supuesto de que el acuerdo no lo concrete, se entenderá concedido poder general para la firma del documento al Presidente.

# III. KAPITULUA

## KONTSEILUBURUTZAREN FUNTZINOAK

**11. ARTIKULUA**

Zuzendaritza Kontseiluburutzak honako funtzinoak eukiko dauz:

1. Zuzendaritza Kontseiluaren bileretako deialdiak egin, bertako buru izan, horreek eten eta batzarrak amaitutzat emotea, eztabaidak zuzentzea eta lehentasun-botoaren bitartez bardinketak erabagitea.

2. Zuzendaritza Kontseiluaren erabagiak bete diran jagotea.

3. Zuzendari-gerentearen jarduerea segidutea eta Zuzendaritza Kontseiluari Zentroaren funtzionamenduan ikusi diran irregulartasun guztien barri emotea, holakorik egotekotan, bai eta horren inguruan egondako salaketa edo kexen barri emotea be, organo gorenak kasu bakotxean erabagi ahal izan daian.

# CAPITULO III

## FUNCIONES DE LA PRESIDENCIA

**ARTICULO 11º**

Corresponderá a la Presidencia del Consejo Rector:

1. Convocar, presidir, suspender y levantar las sesiones del Consejo Rector, dirigir las deliberaciones y decidir los empates con voto de calidad.

2. Vigilar que se cumplan los acuerdos del Consejo Rector.

3. Seguir la actuación del Director-Gerente, poniendo en conocimiento del Consejo Rector cuantas anomalías se observen en su caso sobre el funcionamiento del Centro, denuncias o quejas en tal sentido, etc., para que el órgano supremo pueda decidir en cada caso.

4. Herri Erakunde Autonomoa ordezkatzea Epaitegi, Auzitegi, Magistratura eta Udalbatzen aurrean, Agintaritza, Notario eta partikularren aurrean. Legeek horretarako eskatzen dabezan aginduak eta botereak Abokatu eta Prokuradoreari emotea, 4. artikuluan zehaztu dan legez eta, batez be, larrialdi egoeretan ekintza judizialak eta administratiboak egitea eta beharrezko kontratuak emotea, Zuzendaritza Kontseiluak egingo dauan lehenengo batzarrean horren barri emonaz.

5. Jardunaldi ekonomiko bakotxean egindako jardueren barri emotea.

6. Akta eta ziurtagiriak baimentzea, oneritxia be emonaz.

7. Larrialdiko neurriak hartzea, ia ezinezkoa danean Zuzendaritza Kontseiluko kideei deialdia egitea, inguruabar larri eta premiazkoen ondorioz.

8. Indarrean dagoan legegintzaldian toki araubidearen eremuan alkatearentzat adierazo diran ganerakoak.

**ZUZENDARITZA KONTSEILUBURUA ORDEZTEA, EZ BADAGO, GAIXORIK BADAGO EDO LANPOSTUA HUTSIK BADAGO**

**12. ARTIKULUA**

Zuzendaritza Kontseiluburua ez badago, gaixorik badago edo bere eskumenak beteteko eragozpenen bat badauka, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO lehendakariordeak ordeztu beharko dau kontseiluburua, bere funtzinoak betez.

Modu berean, bere funtzinoak beteko dauz Erakunde Autonomoaren Kontseiluburutza lanpostua hutsik geratzen bada, beste kontseiluburu batek kargua hartu arte.

4. Representar al Organismo Autónomo Local ante los Tribunales, Juzgados, Magistraturas y Corporaciones, Autoridades, Notarios y particulares y conferir mandatos y poderes a Abogado y Procurador que exigen las Leyes a tales efectos, según se especifica en el artículo 4º, y especialmente otorgar los contratos necesarios y ejercitar acciones judiciales y administrativas en casos de urgencia, dando cuenta al Consejo Rector en su primera reunión.

5. Rendir cuentas de las operaciones efectuadas en cada ejercicio económico.

6. Autorizar las actas y certificaciones poniendo en ellas el visto bueno.

7. Adoptar las medidas de carácter urgente, cuando resulte prácticamente imposible convocar a los miembros del Consejo Rector, por circunstancias graves y urgentes.

8. Aquellas otras señaladas para el Alcalde en la Legislación vigente en materia de Régimen Local.

**SUSTITUCIÓN DEL PRESIDENTE DEL CONSEJO RECTOR, EN EL CASO DE AUSENCIA, ENFERMEDAD O VACANTE**

**ARTICULO 12º**

En los casos de ausencia, enfermedad ó impedimento que imposibilite al Presidente del Consejo Rector el ejercicio de su atribuciones, le corresponderá al Vicepresidente-a de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA el sustituir al Presidente en sus funciones.

Igualmente desempeñará sus funciones en los supuestos de vacante en la Presidencia del Organismo Autónomo, hasta que tome posesión un nuevo Presidente-a.

## KONTSEILUKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

**13. ARTIKULUA**

Kontseilukideek honako eskubideak eukiko dabez:

1. Zuzendaritza Kontseiluko batzarretara joatea, berbeagaz eta botoagaz.

2. Kontseiluburuaregandik, zuzendari-gerenteak daukazan aurrekari, datu edo informazino guztiak jasotea, beren funtzinoa garatzeko beharrezkoak badira.

3. Zuzendaritza Kontseiluak aztertu behar dauzan gaien ganeko informazino eta agiriak aztertzeko aukera, bai eta bertan hartutako erabagi edo ebazpen guztiak aztertzeko aukera be.

4. Toki Araubidearen alorrean indarrean dagozan xedapenetan aintzatetsitako ganerako eskubide guztiak.

Kontseilukideek honako betebeharrak eukiko dabez:

1.- Zuzendaritza Kontseiluko batzarretara joatea, galarazoten dauan arrazoi justurik egon ezean; holakorik jazotekotan, aurretiaz jakinarazo beharko deutsie kontseiluburuari.

2.- Toki Araubidearen alorrean indarrean dagozan xedapenetan aintzatetsitako ganerako betebehar guztiak.

## DERECHOS Y DEBERES DE LOS VOCALES

**ARTICULO 13º**

Serán derechos de los Vocales:

1. Asistir con voz y voto a las reuniones del Consejo Rector.

2. Obtener del Presidente cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder del Director-Gerente y resulten precisos para el desarrollo de su función.

3. Acceso a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por el Consejo Rector, así como de cuantos acuerdos ó resoluciones se adopten.

4. Los demás derechos reconocidos en las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local.

Serán obligaciones de los Vocales:

1.- Asistir a las reuniones del Consejo Rector salvo justa causa que lo impida, que deberán comunicar con la debida antelación al Presidente.

2.- Las demás obligaciones reconocidas en las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local.

# IV. KAPITULUA

## ZUZENDARITZA KONTSEILUA IZENTAU ETA BARRITZEKO PROZEDUREA ETA BERTAKO KARGUEN IRAUPENA

**14. ARTIKULUA**

1. MANKOMUNITATEKO Lehendakaritzako titularra izango da Zuzendaritza Kontseiluburua, bere karguari

# CAPITULO IV

## PROCEDIMIENTO PARA EL NOMBRAMIENTO Y RENOVACION DEL CONSEJO RECTOR Y DURACION DE LOS CARGOS DEL MISMO

**ARTICULO 14º**

1. El titular de la Presidencia de la Mancomunidad es el Presidente del Consejo

atxikitako eskubidearen bitartez; halanda ze, bertan segiduko dau ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO lehendakaria dan bitartean.

2. Mahaikideek be beren egoerea mantenduko dabe ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarreko mahaikideak diran bitartean.

3. Zuzendaritza Kontseiluan kargu barriak hartzeko, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAn lanpostu hutsa bete ostean deitutako lehenengo batzarrean egingo da, ohikoa zein apartekoa izan; horretarako bere Funtzionamendu Estatutuan adierazotakoa edota, holan danean, Tokiko Administrazinoari aplikau eikion hauteskunde-legerian agindutakoa segiduko da.

4. Herri Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluko kideek iraupen zehatza eukiko dabe euren karguetan, jarraian adierazo dan legez:

4.1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO mahaikideak Herri Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluko kide izaten segiduko dabe, MANKOMUNITATEKO lehendakariaren edota Gobernu Batzarreko kideen legezko egoerea mantentzen daben bitartean; aitatutako kargua galtzean –legegintzaldia amaitu dalako, legez onartutako dimisinoa aurkeztu dalako edo beste edozein inguruabar jazo dalako-, automatikoki itxiko dabe Zuzendaritza Kontseiluko kargua be.

4.2. Lehendakariak eta lehendakariordeak aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera itxi dabenean lanpostua, arestian ezarritako modu berean jardungo da; hau da, MANKOMUNITATEKO lehendakari eta lehendakariorde barriek hartuko dabe kargu honeen ardurea.

Rector por derecho propio inherente a su cargo, permaneciendo en éste mientras se mantenga en su condición de Presidente de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

2. Los Vocales conservarán igualmente su condición mientras se mantenga su condición de Vocales de la Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

3. La toma de posesión de los nuevos cargos dentro del Consejo Rector se hará en la primera sesión que se convoque, sea ordinaria ó extraordinaria, después de haber sido provista la correspondiente vacante en ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, con arreglo a lo dispuesto en sus Estatutos de Funcionamiento y/o, en su caso, con arreglo a lo dispuesto en la legislación electoral aplicable a la Administración Local.

4. Los miembros del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local, tendrán una duración en sus cargos, según se expresa a continuación:

4.1. Los Vocales de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, continuarán perteneciendo al Consejo Rector del Organismo Autónomo Local, en tanto mantengan su situación legal como Presidente de la Mancomunidad y/o Vocales de la Junta de Gobierno, cesando automáticamente al perder la condición de Corporativos, tanto por finalización del mandato, como por la dimisión legalmente aceptada u otra cualesquiera circunstancia.

4.2. Cuando el Presidente y el Vicepresidente, hubieran cesado con arreglo al párrafo anterior, se procederá de la misma forma establecida anteriormente, es decir tomando posesión los nuevos Presidente y Vicepresidente de la Mancomunidad.

# V. KAPITULUA

## ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN JAGOLETZA AHALMENAK

**15. ARTIKULUA**

1. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Osoko Bilkurari jagoko, fundatzailea dan aldetik, "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"k garatuko dauzan jardueren eta kontuen goi ikuskaritzea egitea.

2. Zuzendaritza Kontseiluak urtero emongo deutsaz ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Osoko Bilkurari hurrengo ekitaldirako eratu diran aurrekontuak, jakin daian eta ontzat emon daizan.

3. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Osoko Bilkurak Herri Erakunde Autonomoaren ondare eta aurrekontuaren ganeko urteko kontuak ontzat emoteko ahalmena gordeko dau; holan ba, jagoken bidea emongo deutse behin betiko berretsi arte.

4. Zuzendaritza Kontseiluak honexek emongo deutsaz ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Osoko Bilkurari, horreen barri euki daian:

a) Herri Erakundearen kudeaketa ekonomikoaren ganeko akordioen laburpena.

b) Urtero idatziko dauan Memoriaren ale bat; bertan, emondako zerbitzuak, egoera ekonomikoa, beharginen aldaketak eta urte horretan egondako ganerako jazoera guztiak azalduko dira.

# CAPITULO V

## FACULTADES DE TUTELA DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

**ARTICULO 15º**

1. A la Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, por el concepto de fundador, le corresponderá la inspección superior de cuentas y actividades que desarrolle "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"

2. El Consejo Rector elevará todos los años a conocimiento y superior aprobación de la Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA los presupuestos formados para el ejercicio inmediato siguiente.

3. La Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA se reserva la potestad de aprobación de las cuentas anuales del presupuesto y patrimonio del Organismo Autónomo Local, a las que dará el curso correspondiente hasta su sanción definitiva.

4. El Consejo Rector elevará a la Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para su reconocimiento:

a) El resumen de los acuerdos correspondientes a la gestión económica del Organismo Autónomo.

b) Un ejemplar de la Memoria que redactará todos los años expresiva de los servicios prestados, situación económica, cambio de personal y demás incidencias ocurridas durante el período anual al que corresponda.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Estatutu honeetan aurreikusi ez diran kasuak Zuzendaritza Kontseiluak ebatziko dauz, kasu bakotxean aplikau eitekean administrazino legeriaren edo legeria zibilaren arabera.

Estatutu honeetan aitatu diran administrazinoko lege arauei egindako erreferentziak, honakoen araberakoak dira: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, abenduaren 16ko 57/2003 Legea, apirilaren 14ko 6/1997 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua, zemendiaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretua eta 1955eko bagilaren 17ko Zerbitzuen Araudia, ostean izan daben aldaketakaz, eta horreek ordezten dabezan maila bereko edo goragoko xedapenak be kontuan hartuta.

BIGARRENA.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAk bere ekimenaz edo Zuzendaritza Kontseiluak eskatuta, "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA"ren Estatutuak aldatu, indarbakotu edo murriztu ahal izango dauz; modu berean, "Egoitza Zentroaren" eta "Eguneko Zentroaren" zerbitzuen kudeaketa modua aldatzea be erabagi ahal izango dau; horretarako, gehiengo absolutuko bozketa quoruma erregistrau beharko da.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA.- Los casos no previstos en estos Estatutos serán resueltos por el Consejo Rector, en atención a la legislación administrativa o civil aplicable a cada caso.

Las referencias a normas legales administrativas contenidas en estos Estatutos deben entenderse hechas a la Ley 7/1985, de 2 de Abril; Ley 57/2003, de 16 de diciembre; Ley 6/1997, de 14 de abril; Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril;; Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre, y el Reglamento de Servicios de 17 de junio de 1.955, con las modificaciones posteriores, así como a las disposiciones de igual o superior rango que las sustituyan.

SEGUNDA.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, por su propia iniciativa, o a petición del Consejo Rector, podrá modificar, derogar, ampliar o reducir los Estatutos del Organismo Autónomo Local "ARRATIAKO EGOITZA * HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA, así como acordar la modificación en la forma de gestión de los servicios del "Centro Residencial" y del "Centro de Día", debiéndose registrar un quórum de votación de mayoría absoluta.

## AZKEN XEDAPENA

Estatutu honeek apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluetan agindutakoaren arabera sartuko dira indarrean, behin betiko ontzat emon izanaren iragarkia eta Estatutuen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean.

## DISPOSICIÓN FINAL

Los presentes Estatutos entrarán en vigor con arreglo a lo dispuesto en el arto 65.2 y 70.2 de la Ley 7/1.985 de 2 de Abril y ello tras la publicación del oportuno anuncio de aprobación definitiva, junto al texto íntegro de los Estatutos, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Igorre, 2004ko ekainaren 10a

Igorre a 10 de junio de 2004

Mankomunitateko Lehendakaria
El Presidente de la Mancomunidad

Bait. Idazkari-Kontuhartzailea
El Secretario-Interventor acctal.